



## LIBURUA

# Haizea dator, gure ileak nahasi, eta badoa

IGOR ESTANKONA

**P**eru Magdalenak zerbait dauka berezia, ohikoena ezohiko bihurtzeko abilidade berezko bat. Kapaz da enegarren haikuak idazteko eta irakurleari sentiarazteko lehen aldiz ari dela irakurtzen poesia deskriptibo hiper-laburra. Berak inauguratu du Balea Zuria argitaletxearen "Urrezko saila", poxpolo kaxa baten tamainuko erdi liburu erdi arte-objektu batekin. Hirurehun ale bota dituzte. Nirea da berrehun eta hirurogeita hamazazpigarrena.

Poesia deskriptibo hiper-laburra esan dugu baina, badakizue, ondo landutako haikuek filosofiarantz egiten dute halabeharrez, durundu berezi bat sortzen baitute gure baitan, esaten dutena baino gehiago esango balute bezala. Harria uretara botakeran lez, uhinek luzetu egiten dute Magdalenaren poesia: "eurite motza/ hostoak busti dira/ enborra siku", edo "larre moztua/ elkarren ezberdinak/ belar guztiak" edo, Matsuo Basho maisu handiari omen eginez, "basha bete ur/ haikuan izoztuta/ irakurtzen dut".

Haikuak bere iturburu literarioa an-

tzinako Txinako erlijio nagusietan dauka: budismoa, konfuzionismoa eta taoismoa. Pentsamenduok Asiako eskualde ugaritara hedatu ziren, eta Japoniara iritsi gero idazkera eskema laburrok, jakinduriarantz jantziak eta eragin handikoak. Japoniarrek lehendik zeuzkatuen euren poesian -katauta, sedoka, txoka, tankahalako eiteak. Haikua gurean berandu loratu zen, baina oreka prekario eder berean dago oinarriturik, Busonen tximeleta hura bezala: "Tenplu-kanpaian/ Lotan da geldi-geldi,/ Pinpilinpaua".

Igerabidek, Linazasorok... askok praktikatu dute arte delikatu hau, bai-

## TANTAKA PERU MAGDALENA

BALEA ZURIA, 2020

na niretzat maiteenak Peru Magdalenarenak dira, aszeta bat delako, detalearen zilargin behinena. Berak badaki ekartzen natura destilaturik onena gure espirituantzat, Fuji mendia Anboto dela ebatzita: "anboto hortxe/ sugandila hementxe/ udaberrian". Berak badaki keinu literario bat jartzen leku egokian -"maitea dator/ gure bihotza nahasi/ eta badoa"- . Meteoroak, ibaiak, mendiak, zuhaitzak. Animaliak, landareak, norbera. Arkatza, haikua. Sentitu egiten du poesia Peru Magdalenak, eta hori igarri egiten da; tantaka doa iragaziz-iragaziz mundu miragarri bat. ●



**ezta baida**

EZTABAIDA BILDUMA,  
GOGOETARAKO ETA IDEIEN  
JOAN-ETORRIA BULTZATZEKO  
ESPASIO IREKIA

**elkar**

www.elkarargitaletxea.eus

**EUSKAL  
DEMOKRAZIA  
PATRIARKALA**

JULE GOKIOETXEA  
LORE LUJANBIO  
ZURINE RODRIGUEZ  
ESTITXU GARAI

**COVID-19  
ETA ONDOREN  
ZER?**

TELESFORO MONZON  
EUSKAL HERRIGINTZA  
LABORATEGIA